

HARRAPATUTA

Iraitz Ugalde Pikabea, 16 urte

Lezo

10:00 hormako ordulari okertuan. Borobila denez ez dirudi hala dagoenik, baina okerra dago. Eta berriro hemen. Berriro aulkiak borobilean jarri eta geure burua aurkeztera. Beste behin bizitza grisez blaitu digun mamutzarrari aurre egiteko bilduta, zortzi lagun, laguntzaile bat eta ni. Gorroto ditut lehenengo egunak. Lotsak iltzatuta-ko ezpainak ezin zabaldu, bihotzaren leihoak itxita, maskor baten barruan bageunde legez, aparte-ko burbuila batean, zentzumenak itzali eta munduari bizkarra emanda. Eta halaxe da, ezin uka, zentrorra hurbiltzen den edonork espero baitu bizi den urruneko orbita horretatik bueltan berriro ere gizartean onartua izatea.

Egia esan, hau ez da lehen aldia zentroko gela batean aurkitzen naizena. Oroitzen dut, oraindik, duela urte gutxi gaurkoa bezalako lehen egun bat izan nuela. Zentroko zuzendariak “bienvenidos a Proyecto Hombre” hotz batez egin zigun ongi-etorria eta alboan zuen mutilari eman zion hitza.

–Egun on! –hasi zen gaztea irribarretsu– ni Xabi naiz, eta hogeita bost urte ditut. Goizero elkartuko gara hemen eta zuek nahi duzuenaz solastatuko gara... –drogaz, finean– elkarri entzungo diogu eta gure arazoez hitz egingo dugu... Zuek hala nahi izanez gero, behinik behin.

Mutil gizagaixoa, zekarren asmo on guztia ere ez zen nahikoa izanen usteldutako nortasun haien udaberri negutuak loratzeko. Hala ere, goizero eskaintzen zizkigun bere irribarrea eta hizketa lasaia.

Hasieran ez nion arretarik ipintzen Xabiren eguneroko hitz tropelari. Horixe ziren niretzat, inolako zentzurik gabe eta haztamuz bata bestearen atzetik ene belarri barrunbeetan burrunbatzen zuten hitzak. Honela solastu zitzaigun egun batean, ordea: “... Baina, arrosak, hostotuta ere, arrosa izaten jarraitzen du...” Lurretik begirada hautsia jaso eta soa bere begietan iltzatu nuen. Ordutik, bere esanak adi entzuteari ekin nion eta denborarekin gustura joaten hasi nintzen harekin izaten genuen goizeroko hitzordura.

Behin, irtendakoan, kideek zigarroak irrika gehiegizkoaz pizten zituzten bitartean, Xabiri hurreratu nintzaion, artean *peugeot* zaharrearantz ari zela.

–Hik ere izanen duk, bada, arazorik... Beti irribarretsu etortzen haiz, ordea, gugana, guri lagundu beste lanik ez bahu bezala... Sarri pentsatzen diat ez ote den mozorroa besterik...

Harri eta zur begiratu zidan, isilik hasieran.

–Zergatik ez dun ahots eder hori gelan erabilzen? Makina baten bihotza lapurtuko huke... –keinu egin zidan begiaz. Lausengu merke hura nahikoa izan zen irri erraz bat ene aurpegian marrazteko. Ez nuen sekula nire arazoez hitz eginen gelan. Entzun bai, guztien bizipenak, eta beraiengandik ikasi, baina nire arazoak niretzat ziren. Eta Xabik behin eta berriro hizketarako gonbita egin arren, ez nuen ene ahotsaren kolorerik gelan erakusten.

Kale izkinako tabernan igaro genuen ondorengo ordubetea, garagardoaren bitsa, tabernako ke usaina eta irri bat edo beste elkarri oparitut. Mutil interesgarria inondik ere. Erakargarria bezain goxoa. Laster ostu zidan bihotza haren goizeroko irriak. Bai, maitemin errazekoa naiz. Eta hala harrapatu ninduen Xabik, bere amaraun ezitan.

Larunbat gaua heldu zen. Gaueko ordubiak izanzen ziren *Txoritoki* tabernan ustekabeen topo egin genuenean. Edo agian bostak izango ziren. Ez dakit, denboraren zentzua galdua nuen aspalditxotik. Izan ere, heroina alkoholaz ordezkatzeari ez da lan erraza, inurriak elkartuz elefante bat osatzea litzateke, edo uretan ardoaren zaporea bilatzea. Eta alkohol graduek ez ninduten *dama desiratuak* igotzen ninduen gailurreraino eramaten. Ez zitzaidan komeni, ez alkoholik, ez marihuanarik... Baina ezin nuen jasan gorputzaren eskea, agresibitate bilakatzen zen oihua. Bai utziko nuen, apurka, horixe hitz eman nion ene buruari. Eta halaxe egi-

nen nuen. Gau hartako azken porroaren ostean, ordea, gorputzak oihuka jarraitzen zuen, barrutik ate joka, “igo nazazu mendira, gailurrera, hodeietara!”. Eta buruaren asmo ona irentsiz, zerbait gogorragoaren bila hasi nintzen taberna zuloan. Akaso ezagunen batek pasatuko zidan zerbait.

Gau hartan, aurki litekeen drogarik gogorrenarekin egin nuen topo, pare bat kopa soberan zituen Xabirekin. Ezin eutsi gorputzari, ezin barruko zurrumbiloa (alkoholak azeleratua) gelditu. “Hi hemen?” lotsati batez itzali nahi izan nuen barneko ekaitzaren sua. Eta ohi bezala, hizketari eman genion. Ni haren irri gozotan urtu nintzen, ezpain mamitsutan, lehen hitza esan zuenetik igeri nenbilen itsasoan.

Irten ginen Txoritokitik eta azken tragoa hartzera eramango nuela esan nion. Baina, desioaren sokari tiraka, hondartzara iritsi ginen, eta harea hezetan eseri, hizketa eten barik. Irri egiten zuen guztietan, bere olatuak nire hareatza irentsitako bakoitzean, gertuegi sentitzen nuen gorputz haren jabe izateko irrika jabetzen zen nitaz. Eta hala, solasa jolasera eramanez, itsaso eta gaua itzaliz, pasioari su eman genion. Bihurri mugitzen nintzen beraren gainean, bihurri, bere hatz leunak ene bihurgune guztietan barna. Ez zen hotzik abendu erdialdeko arrats hartan, ez bion arteko plazer burbuila hartan behintzat. Eta irtenbide bat ikusi nuen tunel luzearen amaian. Ez zen momentuko zorionaren izpia, ez, hilabete luze haietan Xabik emandako laguntza guztia aurrerantzean alboan

izango nuen sentipenaren argia zen. Eta zoriona ezagutu nuen une batez, ahal izan nuen neurrian, neugandik at bainenbilen oraino.

Erdi lo geratu nintzen hareak erdi estalitako bular biluziaren gainean.

–Joan beharra dinat. –Entzun nuen. Eta alde egin zuen, galtzetako kremailera lotzearekin batera.

–Maite haut! –esan nuen neure baitan. Edo agian oihuka. Ez dut oroitzen, ez dakit aditu zidan ere. Kontua da, hantxe geratu nintzela, beraren usaina neugan ukanez, egunsentiak gau zoragarri hura nola zeraman begira. Bere ahots apala irudikatuz esnatu nintzen, eguerdi aldera, ia hareak janda, hondartza hutsean. Abenduaren hotzak aspaldian eramanak zituen familia udatiarrak eta toldo koloretsuak. Neure baitan nerabilkien oroitzapena, delirio bat, amets hutsala edo aurreko gaua izan ote zen galdetu nion ene buruari. Eta pentsamendu nahasi haietan korapilatuta, bainu hotz bat hartu nuen Kantauriko ur gazi gozotan.

Astelehen goizean *peugeot* gorriaren ondoan itxaron nion Xabiri. Ederki disimulatu zuen gainerakoen aurrean gure artekoa. Etorri eta autoan sartu zen, eta ni beraren alboan.

–Hitz egin behar dinagu... –esan zidan ahots dardaratiaz. Irrikaz heldu nion eskua, larunbat gauekoaz zerbait esango zuelakoan. –Ez, ezin dinagu... joder! Ixiar, ez zuen gertatu behar!

Harri eta zur geratu nintzaion begira.

–Zer diok?

–Hara, neska, zoragarria izan zunan, biontzat! Baina, nik ez haut... tira, ez dinat ezer sentitzen higitik. Erakartzen naun bai, baina...

Hizketan segi zuen. Edo agian ez. Autoko atea zabaldu eta alde egin nuen, “ez nauk jostailu bat” airera oihukatuz. Inguruko jendea begira geneukan. Niri bost! Garrasi batean alde egin nuen, lasterketa, inoizko film erotikorik ederrenaren eszenatoki izan zen hareatza hezera. Bertan etzan nintzen, hondarrak berriro irents nindezan. Oihu eta zotin artean egin nuen negar, ene gorputza hondarretan era historikoan higituz, narrasti biluziaren gisan.

Gau hura Xabiren omenez izan zen. *Txoritokira* hurbildu nintzen, ez zegoen han. Jakina, hurrengo egunean drogazale gajo haiekin bilduko baitzen, mendekotasunari aurre egiten laguntzera. Bihozgabea. Bera zen eta drogarik preziatuena, hegan egiteko modurik onena, ahazten zailena... Goizaldera itzuli nintzen etxera. Okindegiak zabaldu aurretik? Ez dakit. Etxerako bidea ere ez dakit nola aurkitu nuen. Heroinak orain ere bere esku gaiztoaz ferekatu ninduen zorigaitzaren aurrean. “Hi bai maitale fidela, dama, hik edozein sasikume baino gehiago berotzen naun...”. Oheratu ordez, komunera joan nintzen. Ispiludun armairutxoa zabaldu nuen, aurpegi penagarri hura paretik kentzeko, eta pilula pota bi hartu nituen. Ez nuen jakin etiketako letra txiki hura irakurtzen, baina lagungarri izango ziren ziur. Bitan pentsatu barik, guztiak irentsi nituen eta urez bete berri nuen baineraren epeltasunean murgildu nintzen.

Irtenbidea, bizipoza eta adorea ematen zizkidanak labankada sartu zidan bihotzondoan. Zer eginen nuen mundu honetan? Zergatik segi? Zertarako jarraitu arnasten, amesten, bizitzen, iritsiko ez zen bizimodu perfektu haren bila? Akitu zitzaidan indarra. Ez nintzen negar egiteko gai. Izua sentitu nuen barru-barruan komuneko alfonbraren azpian eta ispiluan islatuta, leku guztietan. Eta ene burua lasaitzearren edo, aho txikiaz “everything gonna be allright” Marley erregearen reggae doinuak imajinatu nituen, eta gorputza geldoki mugituz, mundu honetatik alde egin nuen une batez. Libre izanen nintzen, bizitzeko gogorik ez zuten nortasun eta gorputz haiengandik urrun. Existitzeari utziko nion. Salbazioa, bakea!

Orduan, gerora kontatu zidanez, Xabi sartu zen etxean, ixtea ahaztu nuen ateari bultzata.

–Ixiar, ez haiz etorri gaur... Tira, ez hadi haserretu, ez dinat ondo jokatu, baina...

Bainugelan aurkitu omen ninduen, gorputza baineran murgilduta, ile adats igerilariak aurpegia estaltzen zidala. Anbulantziak eramanez ninduen ospitalera eta bertan arduratuko ziren gainerakoaz.

Ezer gutxi oroitzen dut egun ilun haietaz. Igaro dira urte bi hori guztia jazo zenetik. Zabaldutut begiak, ospitalean igarotako bost hilabeteen zurtasun argiaz. Badakit, gorputz ustela ez dela lehenera itzuliko, baina, nortasuna berriro nator gaur zentrorra. Gogor itxi dut behinola zabalik ahantzi nuen atea, bizia salbatu zidan despistea, inondik

ere. Gaur, atea harro giltzatu dut, ene ekintzen jabe. Eta azken porroa piztu nuen metxero berberaz erre dut 1995 madarikatu hartako egutegia, 9:45ean. Eta ketan hegan, iraganeko irrika, mamu, itzal eta beldurrak ikusi ditut. Indartuta sentitzen naiz, adoretsu. Harrapatu ninduen, bai, Xabiren droga adiktiboak, baina, damaren kartzelatik ihes egitea lortu dudan eran, Xabirengandik ere egingo dut, oraingoan zentzuz jokatuta. Eta bere arantza bihotz txokoan gordeko dut, gainerako guztia bezala, isilean. Ez, ez naute gehiago sentimendu eta momentuko plazerrek galbidera eroango. Ibaiaren korrontearen aurka noa orain, urrats bustiaz, poliki, baina, gora, zorionerantz.